

# Roxa

## Zabalegi Zubizarreta

Astigarraga, 1959

***Astigarraga Aldizkariko idazlea eta Astigar Elkarteko partaidea. Oraindik ere herrigintzan dabilena eta dagoen tokian dagoela aktiboki parte-hartzen duena.***

***Escritora en Astigarraga Aldizkaria y miembro de Astigar Elkarte. Sigue comprometida con su comunidad y participa activamente allí donde va.***

**Ikus sintesia bideoan  
Ver síntesis en vídeo**



Roxa Astigarragan jaio zen, 1959ko martxoaren 29an. Momentu horretan Astigarraga Donostia bazen ere, bere hitzetan: **«Astiarrakua, betikua»**. Ama mutrikuarra zuen, amona Ergobikoa, eta aita zein haren aldeko izeba-osabak Astigarraga bertakoak ziren. Lau anai-arreben artean zaharrena da Roxa: **«Orain bakarrik ahizpa bat daukat, bi anai izan nitun baino haiek gaztetan hil zian»**.

Gaur egun Kultur Etxe Zaharra dagoen eraikinean ikasi zuen, garai hartan oraindik monjen eskola baitzen. Urte gutxigatik ez zuen ezagutu Astigarragan 1967an sortu zen ikastola: **«Ez zegon aukera nere garaian»**. Ikasketekin aurrera egiteko gogoz, batxilergoa egiteko inguruko herri batera mugitu behar izaten ziren, eta garaiz erabaki behar zuten gainera. Izan ere, Astigarragan ikasten jarraituz gero, ez zegoen ikasketekin jarraitzeko aukerarik. Roxaren kasuan, Hernaniko institutura joan zen eta bertan 10 urtetatik 16 urtera bitarte egon zen ikasketak burutzen. Lehenengo batxilergo elementala eta gero goi mailako batxilergoa egin zituen. Goi mailako batxilergoa hasi zuenean, hau da, 5. maila deitzen zitzaion horretan elkartu ziren lehen aldiz neska-mutilak ikasgelan, ordura arte: **«Mutilak alde batetik eta neskak bestetik»**.

Hautzaro eta nerabezaroari dagokionez: **«Astiarrak egia esan etzakan ezer»**. Une hartan soilik goiko plaza zegoen (Foru Enparantza), beheko plazan (Joseba Barandiaran plazan) oraindik komentua baitzegoen. Hortaz, aisialdian inguruko baserri eta sagardotegietara joaten ziren, belazetan jolastera. **«Goatze naiz goiz hasi ginala juten Hernania, 13 urtekin edo hola autobusa hartu eta zinera, eta gero Tilotan dantzatu eta gero ya hasi ginan Oialumen denboa gutxin, eta ya Oialumea juten ginan danak, gazte guztik»**.

Denborak aurrera egin ahala, Astigarragan zerbait sortzeko beharra eta gogoia sentitu zuten hainbat gaztek: **«Jende asko juntatu ginan eta hasi ginan antolatzen guk, gazteok, eskatzen genitun gauzak»**. Horrela sortu zen 1975ean Astigar, gaur egun dantza talde bezala funtzionatzen badu ere herri mugimendu gisa sortutako herriko gazteen taldea.

Astigarragako bi gaztek Argia Dantza Taldean dantzatzen zuten eta herrian ere bazegoen txistulariren bat. Hori dela eta, soka-dantza dantzatzeko ideiarekin hasi zen guztia: **«Dantza hasieran guk dantzatzeko, eta gero ya eskola bezela umeekin»**. Une hartan Astigarraga Donostiako auzoa zen eta Udalak ez zizkion herriari baliabide nahikorik eskaintzen; hortaz, elkartzen hasi ziren herrian zegoen hutsunea betetzeko asmoz.

Astigar taldean hasieratik neska-mutilak hasi ziren dantzan: **«Hasieratik izan zan ideia soka-dantza atatekua, eta hau bikoteka da, ordun bikoteak atea ginan»**. Hala ere, hasieran behintzat, dantzak generoaren arabera banatzen ziren: **«Hor bai bereizten genitula mutilen dantzak, Bizkaiko dantzak mutilek dantzatzen zituzten eta punto, bazegoen bereizketa hori. Guk dantzatzen genuen soka-dantzan, dantzatzen genuen ingurutxoak bikoteka eta gero ba Jaurrieta edo nesken dantzak»**.

Talde barruan hainbat talde txiki zauden eta bakoitzak hainbat ekintza antolatzen zituen. Musika ikasteko saioak, euskarazko klaseak (Astigarragako AEKren hastapen direnak), mendi irteerak, dantza, haurrentzako aisialdia (Xaguxar Aisialdi Taldearen hastapenak), kultur ekintzak, kirola, eta beste hainbeste. Horien artean, festen antolakuntza ardatz garrantzitsua zen.

Roxa batez ere euskarazko klaseak ematen eta kultur taldean ibili zen: **«Nik goiz eta atsalde lana eginda, momentu batean eguerdian nekan talde bat alfabetatzeko eta gauean AEKko ikasle berrien beste talde bat»**. Kulturari aritzen zirenek hainbat ekintza antolatzen zituzten urtean zehar; Santio festetan erakusketa bat zein liburu eta disko azoka, beste hainbaten artean.

Kultur talde horrek Astigarragako baserriari buruzko lan bat egin zuen: zenbat baserri zeuden herrian, nolakoak ziren... Apur bat dokumentatzeko helburuarekin. Gero, baserri bakoitzari argazki bat egin zioten eta festetako erakusketan ikusgai egon ziren. Gainera, argazki guztiak salgai jarri zituzten: **«Eta hortik hasi zen Astigarragako aldizkaria»**.

1982. urtean Astigarraga Aldizkaria sortu zen. Lehen ale honetan, bi artikulua argitaratu ziren Roxa Zabalegiren izenean, eta talde desberdinen izenean argitaratutako beste hainbat artikulutan ere parte hartu zuen (Aldizkariako lantaldea, Astigar Elkarte edo Kultura taldea izenekin). Aldizkariak urtero ale berri bat atera du gaur egun arte, partaide eta kolaboratzaile berriak gehitu baitira urte hauetan aldizkariako lantaldera. Roxak familia kontziliazioagatik denbora batez aldizkarian idazteari utzi bazion ere, denborarekin berreskuratu zuen eta gaur egun artikulua idazteaz gain, koordinazio eta erredakzio lantaldean jarraitzen du.

Astigar sortu zenean, Roxak 15-16 urte zituela gogoratzen du: **«Adin tarte nahiko handia zeon, baino lagun kuadrilla in genun. Ordun bai ateatzen ginala danak elkarrekin»**. Ordura arte, neskekin bakarrik ibiltzen zen, lehengusinekin eta beste lagun batzuekin.

Momentu batean, garaiko egoera soziopolitikoak zela eta, Astigarragako gazteak bi taldetan banatzen hasi ziren: **«Gaztedi eta Astigar, eta hor bai egon zala ruptura gazteetan [...] Nik hola parte-parte enun hartu hortan, baino gero bai ginala alde batetik batzuk eta bestean beste batzuk»**. Roxak ez du liskar gogorrik gogoratzen, beste taldera joan ziren bere lagunekin hitz egiten jarraitzen zuen, baina, hori bai: **«Beaiek etzian sekula etorriko guk antolatutako ezerrea [...] Gu gehio zan euskal dantzak eta mendi irteerak eta pixkat apolitikoago momentu hartan»**.

Bizitza profesionalari dagokionez, 15 urte zituela lan eskaintza bat jaso zuen Astigarragan zegoen farmazian lan egiteko laguntzaile moduan. Jabeek bi farmazia zituzten, emakumeak Astigarragan egiten zuen lan, eta gizonak Martutenen: **«Urtebete ere**

**enun in Astiarran, ze izan zuten aukera farmazia traspasatzekua eta ordun jefa eta ni jun ginan bere senarran farmazira, eta hiruok geratu ginan han [...] 16 urtekin hasi eta orain jubilatuta arte».**

Lanean hasi zenean ez zegoen bere postua arautzen zuen legerik. 1992an botikako laguntzaile titulazioa lortzeko azterketa egiteko lehen aukera eskaini zitzaizen farmazietan lanean zeudenei, eta Roxak libreki atera zuen une horretan. Titulua ateratzeko hiru azterketa egin behar ziren, letretakoa, zientzietakoa eta farmaziakoa. Auxiliarrak elkarte bat sortu zuten, eta bertan azterketak prestatzeko klaseak antolatu zituzten gauz. Roxak ordurako bi ume txiki zituen: **«Lanetik atera eta ordun juten nitzan eta nere senarra geatzen zan bi umeekin»**. Azkenean, Roxak ez zituen letretako eta zientzietako azterketak egin behar izan, goi mailako batxilergoarekin baliozkotzen baitzizkioten. Beraz, farmaziako atala gainditu egin zuenez, titulua lortu zuen.

Goiz eta arratsaldean lan egitea, eta familia edukitzea, batez ere haurrak txikiak direnean, ez da lan erraza: **«Nik inun erabat utzi Astigarreko gauzak haurdun geatu nitzanian, gau eskola utzi nun, dantza utzi nun eta hoi lana ta etxiakin nahikua nun momentu hortan, eta hori suertia nakala nere gurasoak inguruan bizi ziala, eta ordun ba laguntza nekan»**. Haurrak eskolatik ateratzen zirenean sartzen zen bera lanera. Hortaz, lanetik irtetea familiarekin egoteko tartea hartzea erabaki zuen: **«Gero pixkat familiakin eon behar dezu»**.

Urteak pasa ahala, haurrak haztean: **«Gero berriz berreskuratu det, bai dantza eta bai aldizkaria [...] Pixkanaka haste zea, eta nola inguruan zauden ere, lagunak dia bertan jarraitu dutenak ordun errexagoa da»**.

Roxak emakume parte-hartzaitzat du bere burua: **«Nei iruitzezait behintzat gustatze zaitela parte hartzea nagon toki guztitan»**. Gaur egun oraindik ere Astigar Elkartearen batzordean jarraitzen du: **«Talde batian baldin bazaude, etzait gustatzen eotia hor nei besteek ematen didatenan zain»**.

Aurten jubilatuta ere, Farmaziako Laguntzaileen Elkartearen zuzendaritzan jarraitzen du: **«Ni azken egunera arte egon naiz, baina oain jarraitu in behar det? Ni jubilatuta egonda ere hortik tiratzen?»**. Horrez gain, Astigarragako parrokiako batzordean ere parte-hartzen du, eta aurretik esan bezala, aldizkariarekin ere jarraitzen du: **«Beti gustatu zait parte hartzea eta gaur egun, nei iruitzen zait behintzat enaizela sartuko saltsa gehiotan, iruitzen zait, baño bueno ez dakit, auskalo»**.

Gazteen unea dela pentsatzen du, belaunaldi berriek lekukotza hartzeko garaia: **«Oain nei iruitzen zait gaztiak in behar dutela, baina toki askotan zaila iruitzen zait. Ez dakit, beste modu batekoa dan jendea, edo beharra ez dan ikusten edo, ez dakit»**. Bitartean, Roxak argi du ahal eta nahi duen heinean ekintza eta talde ezberdinetan parte-hartzen jarraituko duela, beti egin izan duen bezalaxe.

Roxa nació en Astigarraga el 29 de marzo de 1959. En aquel momento, Astigarraga formaba parte de Donostia, pero según sus palabras: **«Astiarrakua, de toda la vida»**. Su madre era de Mutriku, su abuela de Ergobia, y tanto su padre como la familia de este eran de Astigarraga. Es la mayor de cuatro hermanos: **«Ahora solo me queda una hermana; tuve dos hermanos, pero fallecieron siendo jóvenes»**.

Estudió en el colegio de monjas del pueblo, lo que hoy en día se conoce como Kultur Etxe Zaharra. Por pocos años, no llegó a conocer la ikastola que se fundó en Astigarraga en 1967: **«No existía esa opción en mi época»**. Con el deseo de continuar sus estudios, quienes querían hacer el bachillerato debían trasladarse a localidades cercanas, y tenían que decidir con antelación. Si seguían estudiando en Astigarraga, no había posibilidad de continuar. En el caso de Roxa, asistió al instituto de Hernani desde los 10 hasta los 16 años. Primero cursó el bachiller elemental y luego el bachiller superior. Fue en este último, en lo que entonces se conocía como quinto curso, donde por primera vez compartieron aula chicos y chicas, antes de ello: **«Los chicos por un lado y las chicas por otro»**.

Sobre su infancia y adolescencia recuerda: **«Astigarraga, la verdad, no tenía nada»**. En aquella época solo existía la plaza de arriba (Foru Enparantza), ya que en la plaza de abajo (Joseba Barandiaran plaza) todavía estaba el convento. Así que en su tiempo libre solían ir a caseríos y sidrerías del alrededor para jugar en el campo. **«Recuerdo que empezamos a ir a Hernani pronto, con 13 años o así. Cogíamos el autobús para ir al cine, después a bailar en Tilos, y en poco tiempo, empezamos a ir a Oialume. Íbamos todos los jóvenes a Oialume»**.

Con el tiempo, muchos y muchas jóvenes sintieron la necesidad y el deseo de crear algo en Astigarraga: **«Nos juntamos mucha gente y empezamos a organizar lo que queríamos, lo que pedíamos los jóvenes»**. Así nació en 1975 Astigar, un grupo juvenil local que, aunque hoy funciona como grupo de baile, se creó como un movimiento comunitario.

Dos jóvenes de Astigarraga bailaban en Argia Dantza Taldea, y en el pueblo también había algún txistulari. Por ello, todo comenzó con la idea de bailar una soka-dantza: **«Primero, para bailarlo nosotros, y luego, para enseñárselo a los niños»**. En ese momento, Astigarraga era un barrio de Donostia, y el Ayuntamiento no ofrecía suficientes recursos al pueblo; por lo tanto, empezaron a reunirse para responder a las necesidades locales.

Desde el inicio, chicos y chicas bailaron juntos en el grupo Astigar: **«La idea desde el principio fue salir a bailar la soka-dantza, que es en parejas, así que salimos en parejas»**. No obstante, al menos al principio, los bailes se dividían según el género: **«Sí que separábamos los bailes de chicos. Los chicos bailaban los bailes de Bizkaia, y punto, existía esa separación. Nosotras bailábamos la soka-dantza, el ingurutxo en parejas, y luego, pues Jaurrieta o bailes de mujeres»**.

Dentro del grupo había subgrupos más pequeños que organizaban diversas actividades: clases de música, clases de euskera (los inicios de AEK en Astigarraga), excursiones de montaña, baile, ocio infantil (comienzos de Xaguxar Aisialdi Taldea), actividades culturales, deporte y mucho más. Además, la organización de las fiestas era otro punto central para el grupo.

Roxa, sobre todo, participó dando clases de euskera y en el grupo de cultura: **«Después de trabajar por la mañana y por la tarde, en algún momento al mediodía tenía un grupo para alfabetizar, y por la noche otro de nuevos estudiantes de AEK»**. El grupo de cultura organizaba diversas actividades durante el año, como una exposición o una feria de libros y discos en las fiestas de Santio.

Este grupo cultural también realizó un trabajo sobre los caseríos de Astigarraga: cuántos había en el pueblo, cómo eran... Todo con el objetivo de documentarlos un poco. Más tarde, fotografiaron cada caserío y las imágenes se expusieron durante las fiestas. Además, pusieron todas las fotos a la venta: **«Y a raíz de ello nació la revista Astigarraga Aldizkaria»**.

En 1982 se fundó la revista Astigarraga Aldizkaria. En el primer número, se publicaron dos artículos a nombre de Roxa Zabalegi, y ella también participó en otros artículos firmados por distintos colectivos (Equipo de la revista, Astigar Elkartea o grupo cultural). Desde entonces, la revista ha sacado un número anual hasta hoy, incorporando nuevas personas integrantes y colaboradoras al equipo. Aunque Roxa dejó de escribir durante un tiempo por la conciliación familiar, pero con el tiempo volvió. Actualmente, no solo escribe artículos, sino que también forma parte del equipo de coordinación y redacción.

Roxa recuerda que tenía entre 15 y 16 años cuando se formó el grupo Astigar: **«Había un rango de edad bastante amplio, pero formamos un grupo de amigos. Entonces sí que salíamos todos juntos»**. Hasta entonces, solo se relacionaba con chicas, como sus primas y otras amigas.

En un momento dado, debido a la situación sociopolítica de la época, la juventud de Astigarraga empezaron a dividirse en dos grupos: **«Gaztedi y Astigar, y ahí sí hubo una ruptura entre los jóvenes. [...] Yo no tomé partido como tal, pero luego sí quedábamos divididos, unos por un lado y otros por otro»**. Roxa no recuerda conflictos graves y seguía hablando con sus amigas que se fueron al otro grupo, pero, eso sí: **«Ellos nunca venían a nada de lo que organizábamos nosotros [...] Nosotros éramos más de danzas vascas y excursiones de montaña, un poco más apolíticos en ese momento»**.

En cuanto a su vida profesional, con 15 años recibió una oferta para trabajar como ayudante en la farmacia de Astigarraga. El propietario y la propietaria tenían dos

farmacias: la mujer trabajaba en Astigarraga y el hombre en Martutene: **«No llegué a estar ni un año en Astigarraga porque tuvieron la oportunidad de traspasar la farmacia. Entonces, mi jefa y yo nos fuimos a la farmacia de su marido, y nos quedamos los tres allí [...] Empecé con 16 años y hasta jubilarme ahora».**

Cuando comenzó a trabajar, no existía una ley que regulara su puesto. En 1992 se ofreció la primera oportunidad para que quienes ya trabajaban en farmacias obtuvieran el título de auxiliar de farmacia, y Roxa lo consiguió libremente en ese momento. Para obtener el título había que superar tres exámenes: uno de letras, otro de ciencias y otro de farmacia. Las y los auxiliares crearon una asociación donde se organizaron clases nocturnas para preparar los exámenes. Para entonces, Roxa tenía dos hijos pequeños: «Salía del trabajo y luego iba, mientras mi marido se quedaba con los dos niños». Finalmente, no tuvo que hacer los exámenes de letras ni de ciencias porque le convalidaron esas materias con el bachillerato superior. Así que al aprobar la parte de farmacia, obtuvo el título.

Trabajar mañana y tarde y tener una familia, especialmente cuando los hijos son pequeños, no es tarea fácil: **«Lo dejé todo en Astigar cuando me quedé embarazada: dejé la escuela nocturna, dejé el baile, y eso ya era bastante con el trabajo y la casa en ese momento. Tuve la suerte de que mis padres vivían cerca y me ayudaban».** Cuando los niños salían del colegio, ella entraba a trabajar. Así que decidió tomarse un tiempo para estar con su familia después del trabajo: **«Luego, tienes que pasar tiempo con la familia».**

Con los años, cuando sus hijos crecieron: **«Luego lo recuperé todo: el baile y la revista [...] Poco a poco, vas retomando, y como estás en el entorno, los que han seguido ahí son amigos, por lo que es más fácil».**

Roxa se considera una mujer participativa: **«A mí, al menos, me gusta participar allá donde voy».** Hoy en día, sigue en la junta de Astigar Elkarte: **«Si estás en un grupo, no me gusta estar solo esperando lo que me den los demás».**

Aunque recién se jubiló este año, sigue en la directiva de la Asociación de Auxiliares de Farmacia: **«He estado hasta el último día, pero ¿tengo que seguir? ¿Tirando del carro incluso estando jubilada?».** Además, también participa en la junta parroquial de Astigarraga, y como se ha mencionado, sigue con la revista: **«Siempre me ha gustado participar, y hoy en día, creo que no voy a meterme en más líos, pero bueno, quién sabe».**

Cree que es el momento de de la juventud, que las nuevas generaciones deben tomar el relevo: **«Ahora creo que los jóvenes tienen que hacerlo, pero en muchos sitios parece difícil. No sé si es que la gente es diferente o no ve la necesidad, no sé».** Mientras tanto, Roxa tiene claro que seguirá participando en las actividades y grupos a medida que pueda y le apetezca, como siempre ha hecho.